

BEZEROEKIN HARREMANAK





I.-PERTSONALA

Harreragile bat kontratatuko dugu idazkaritzan bezeroen zalantzak argitzeko eta haien kezkak jasotzeko eta konpontzen laguntzeko. Hornitzaileekin harremana zuzena izango da, behar ditugun produktuak telefonoz eskatuko ditugu eta haiek Ikascoffeeko lokalera ekarriko dituzte.

2.-AUTOMATIZATUTAKO ZERBITZUA

Aplikazio bat sortuko dugu. Bertan, txartela kargatzeko, eta hitzaldietaz informatzeko aukera izango dute gure bezeroek. Plataforma honi esker Ikascoffeek eskaintzen dituen zerbitzuak bezeroen profilari moldatuko dira, gure zerbitzuarekin eroso eta pozik egon daitezen.




3.-KOMUNITATEAK

Aplikazioaren barruan, foro eta hitzaldien bitartez, gure bezeroen talde bat sortu nahi dugu ere :komunitatea. Horren bitartez, haien artean komunikatu daitezke, gomendioak eta iritziak partekatzeko. Baita haien kezkak eta iradokizunak foroan kokatzeko aukera izango dute. Horrela guk haiei buruzko informazioa bilduko dugu eta hori funtsezkoa da enpresaren garapenerako.



4.-SARE SOZIALAK

Sare-sozialak ere erabiliko ditugu, gure bezeroak batez ere gazteak izango direlako. Horrela, haiekin harremana sendotzeko gai izango gara eta edozein albisteren berri izango dira momentuan.



Anne Andrés, Araia Arce, Eider González, Peio Irastorza eta Asier Novella

